

**BIKAIN ZIURTAGIRIA BANATZEKO EKITALDIA  
ACTO DE ENTREGA DE CERTIFICADOS DE CALIDAD BIKAIN**

2015-12-21 Europa Biltzar Jauregia – Palacio Congresos Europa 21-01-2015

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburuok, herri agintari guztiok, bai Jaurlearitzaren agintariok baita Foru Aldundieetako ordezkariak eta nagusienak eta baita Udal ordezkariak eta nagusienak, zaudetenak, jaun andreok, arratsalde on.

Bai Urkok, bai Patxik (Baztarrika), bai Robertok (Larrañaga), bai Cristinak (Uriarte), jarritako puntuak, jarraitu behar ditut eta erantzuten saiatuko naiz. Cristinak aipatzen zuen: eredugarritasuna. Eredugarritasunaren ospakizuna dugu gaurkoa. Eredu zarete ongi merezitako ziurtagiriak jaso dituzuen 65 enpresak. Eredu aurtengo ebaluazio saioetan parte hartu duzuen 158 ebaluatzaileak, Cristinak eta Patxik aipatu dituzten bezela. Bikainen ibilbidean inoizko multzorik handienak osatu dituzue. Eredu zarete guztiok, eta gure txaloa jaso egin duzue, euskal gizarte osoaren aitorten gisa.

Euskara ari du, zuen enpresetan. Modu lasai eta sarkorrean ari du. Zuen enpresatako lan sistemetan euskara bere tokia hartzen ari da.

Lehen euskara planak duela 25 urte jarri ziren abian eta, harrez gero, ez da soka eten. Alderantziz, 1997tik hona, 418 enpresak parte hartu dute Eusko Jaurlaritzak gauzatutako egitasmoetan, azken urteotan LanHitz izeneko programan hain zuzen ere. Epe horretan 84.000 langilerengan eragin dute lan munduko euskara planek, eta Jaurlaritzak 26,7 milioi euro erabili ditu ahalegin hori finantzatzeko laguntzeko.

Euskara ari du, etengabe, lan munduan. Baina ez dugu horrenbestez bertan goxo egiten. Gehiago nahi dugu eta behar dugu.

Aurten, abian jarri dugu Euslan hiru urterako programa, hizkuntza kudeaketan aitzindari diren industria enpresek euskaraz lan egin dezaten, eta 900.000 euro erabiliko dugu 5.000 langiletik gora biltzen dituen programa horretan.

Ahaleginaren emaitzak etengabe hobetzea da gure helburua. Langintza horretan, den-denok gara beharrezkoak. Euskara kalitate prozesuetan modu natural eta sistematizatuan txertatzea da giltzarri nagusia.

Bikain ziurtagiriak, bere 8 urteko ibilbidean, garbi erakusten digu bidea: aurrerapauso egingarriak aurreikustea, eta atzera buelta izango ez duten urratsak egitea. Kalitatezko hizkuntza kudeaketa, euskararen garapenaren zerbitzura jarria. Horixe da, berez, Bikainek ziurtatzen duen praktika. Kalitatea eta euskara bidelagun izan behar dutelako.

El euskera avanza gracias a un esfuerzo compartido y mantenido. Fruto de la creciente colaboración y el compromiso del mundo de la empresa, de todas las personas que la conforman.

No nos conformamos, la revitalización del euskera debe afrontar los nuevos desafíos que plantea el dinamismo de nuestra sociedad, también en el ámbito socioeconómico. La innovación forma parte del ADN de Bikain y, de hecho, el certificado Bikain ha dado este año un significativo salto cuantitativo.

Es preciso intensificar esta dinámica positiva, de forma que la evaluación de la gestión lingüística en nuestras organizaciones se extienda al máximo. Nuestro objetivo compartido es que los parámetros de calidad aplicados al uso del euskera encuentren su lugar natural en los procesos de gestión, producción y comunicación de nuestras empresas y organizaciones.

Adostasuna elikatzen eta sendotzen jarraitzea izango dugu, aurrerantzean ere, erronka. Euskararen eta gure gizartearen kohesioaren mesedetan. Etorkizun hobe baten mesedetan.

Zoriondu nahi ditut, amaitzeko, gaur Bikain ziurtagiria eskuratu duzuen 65 enpresa eta erakundeak; baita ere musu truk aritu zareten 158 ebaluatzaileak. Baina zoriontzearekin batera, eskertu ere egin nahi dizuet zuen ekarpena eta eredua. Gure gizartea pixkanaka-pixkanaka euskaraz blaitzen laguntzen duzuelako.

Zorionak beraz eta, gauden egunetan gaudela, Eguberri eta Urte Berri on denoi!